

NEOKOLONIALISMOA

DEITZEN ZAIO

MARTINIKA ETA GUADALUPE

OSOKI KUTSATZEKO HAUTUARI

1972tik 1993ra arte aritu ziren Martinikako eta Guadalupeko banana plantazioetan Chlordecone izeneko intsektizida hedatzen. Produktua minbizi-emaila eta nahasle endokrino zela jakinda ere, erabilpena baimentzeko hautua egin zuen Frantziako Estatuak. Gaur egun osoki kutsatuak dira Frantziaren menpe diren bi irla horiek: lurrak, urak eta herritarrak, guztiak kutsatuta. Borroka ekologista ikuspegi dekolonialistatik eramateko beharra argi uzten du eskandalo horrek.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Chlordecone deitu intsektizidaz pozoituak dira guadalupearren %95 eta martinikarren %92. Jaten eta edaten dutena kutsatua delako. Guadalupeko lurren erdiak dira kontaminatuak, Martinikan aldiz, bi herenak eta ia ez dago chlordconearek ez duen ur eremurik. *World Cancer Research Fund International* fundazioak 2016an argitaraturiko txostenak dio munduko errekor tristea daukatela: 100.000 gizonen artean 227,2k dute prostatak minbizi urtero, mundu mailako batazbestean baino zazpi aldiz gehiagok. Toxikotasun handikoa zela jakinda ere, 1972tik 1993ra aritu zirelako Frantziako Estatuak baimenduriko produktu hori plantazioetan hedatzen. Lurraren arabera, 60 eta 700 urte artean beharko dira kutsadura desagertzeko.

Frantziaren iragan kolonizatzaileari eta esklabistari so egin behar zaio erreallitate hori ulertzeko. Karibe itsasoko Antillen erdian kokaturiko irla horiek kolonizatu zituen XVII. mende erditsutan. Esklabotza garatu zuen, azukre kanaberraren pentzeetan barna. Orduz geroztik, Frantziako Estatuaren menpe bizi dira guadalupearrak eta martinikarrak. Parisen begietan, Karibe erdiko isla horiek Frantzia dira, hori bai, baina Antillak ez dira Metropolia. Hori horrela, Metropoliaren egin ez daitezken gauzak egin daitezke kolonia ohietan eta Antillako eta Metropoliko herritarrek tratamendu ezberdina jasotzea ez da eskandaluzkoa. Normala edo behintzat logikoa ere da

ikuspegi kolonialista batetik so eginez gero. Horrela bakarrik ulertu daiteke chlordconearen izaera arriskutsuaz osoki jakinean izanik ere, bananaren produktioa lehenetsi eta biztanleria osoa kutsatzeko erabakia hartu izana. Horrela bakarrik azaldu daiteke azken berrogeita hamar urte horietan inolako barkamenik eskatu ez izana, arduradunak izendatzeko eta zigortzeko bide judizialak hartu ez izana, kutsatuei edo behintzat eriei zein biziya galdu dutenen senideei kalte-ordainik bideratu ez izana eta nola ez, kutsadura kentzeko plangintzarik gauzatu ez izana. Iazko otsailaren 1ean, oilarkeria osoz, Emmanuel Macron presidenteak adierazitakoa ere zentzu berera doa: "Ezin da erran minbizi-sortzaile denik. Frogatua da chlordcone ez dela ona, zientifikoki baieztatua da, baina ezin da erran minbizi-sortzaile denik, hori egia ez den zerbait erratea eta beldurak elikatzea delako".

Lur suntsitu horietarikoa da Malcom Ferdinand ikerlaria, Martinikakoa zehazkiago. Bertakoen gisara gorputza kutsatua dukeena eta bizian horrekin aitzina egin behar duena. "Ekologia dekolonial bat. Karibetako mundutik pentsatuz ekologia" (*Une écologie décoloniale. Penser l'écologie depuis le monde caribéen*) liburu argitaratu berri du. "Ezin dugu planetaren egoera aztertu gaur egungo eta historian zehar izandako apurketak kontutan hartu gabe. Harritzen nau ikusteak nola gehiegitan kolonialismoaren gaia ez den arazo bat bezala planteatua; ho-

rrek dakar uste izatea planetaz gogoetatu dezakegula historia koloniala gaindituz edota bigarren mailan jarritz". Ikuspegi dekolonialetik dabil chlordconearen eskandalua plazaratzen.

Bi irlak esportaziorako bideratu bananaren ekoizpenari mugatu zituen Frantziako Estatuak, 1920ko eta 1930eko hamarkadetan, esklaboak lanean itoz garaturiko azukre-kanaberraren ekoizpena poliki-poliki bigarren mailara eramanez. Monokultura-rekin errimatzen dute kolonialismoak eta neokolonialismoak, okupaturiko lur zatiak dakarrena bihotzgabekei xurgatzearekin. Bide horretan segitu ahal izateko, banandoetan hedaturiko bananetako gurgurioa izeneko intsektuari aurre egin behar izan zioten bertako ekoizleek.

JAKINA ZEN KUTSAKORRA ZELA

1973an hasi ziren intsektizida hedatzen. Alta, 1979az geroztik minbizi-sortzaile gisa sailkatu zuen Munduko Osasun Erakundeak. 60ko hamarkadan zehar burutu ikerketa zientifikoen emaitza kezagarriak ere hor ziren. AEBetan piztu alarma gorriak ere ez zuen eraginik ukan: 1976an debekatu zuten amerikarrek, urte bat lehenago Hopewell enpresan ehun bat langile zirelako chlordconeaz intoxicatu, hurbileko James River erreka ere kutsatuz. 1977ko *Snegaroff* eta 1979ko *Kermarrec* txostenek ere arriskua plazaratu zuten baina berdin segitu zuten Frantziako agintariek. Ezin isilean utzi Frantziak berak isilarazi nahi duena:



CHLORDECON INTSEKTIZIDA

KUTSAKORRA ZELA JAKINDA
ERE, 21 URTEZ BAIMENDU
DU PRODUKTUAREN
ERABILPENA FRANTZIAKO
ESTATUAK.

1974ko otsailean banana ekoizleek egin-dako grebari emaniko erantzuna. Besteak beste, produktu toxikoen hedapenerako babes jantziak eta chlordeconearen debekua aldarrikatzeko jarri ziren greban. Errepresioaren bidez erantzun zuen Paris-ek, armak erabiltzeko baimena emanaz jendarmeei. Mobilizazioetan zeuden bi hil zituzten: 55 urteko Renor Ilmany Sérier eta 19 urteko Georges Marie-Louise. Oroimenez, Kolo Barst artista martinikarrak sortu *Fevrier 74* (74ko otsaila) kantutak kontatzen du gertakizuna: *Sonjé, pa oublyé, pa oublyé rakonté ich-ou; di yo sa ki pasé an 74* (Ez ahaztu, ez ahaztu zuen historia kontatzea; esaezue zer gertatu zen 74ko otsailean).


Guztiari bizkarra erakutsiz, 1972tik 1993ra arte baimendu zuen Frantziako Estatuak produktu toxiko hori, -okerra-

go, 1990etik 1993ra Metropoliari debekatu eta Antilletan baimendu zuen, bananetako gurgurioari aurre egiteko beste biderik ez omen zelako-. Pozoi *stock*-ak gainetik kentzeko bide erraz gisa ikusten dute erabakia martinikar zein guadalupearrek.

DEKOLONIALA IZAN BEHAR DU IRAKURKETA EKOLOGISTAK

Mugimendu ekologista interseksionalismotik eraikitzeko beharra azpimarratzen dabilta geroz eta gehiago ahots, -munduaren Hegotik eta pertsona arrazializatuen partetik gehien bat-. Premia hori frogatzen duen adibide bat besterik ez da Martinika eta Guadalupeko errealtatea. Kritika eraikitzailea plazaratzen dabil Ferdinand bera: “‘Klima salbatzeko’ deiak bateratzaile dira, baina ez digute

zehazten krisi ekologiko hori gutxiengo batek bideraturiko eta multinazionalen baliaturiko injustizia, zapalkuntza harreman eta naturaren ustiatzearen emaitza dela”. Kapitalismoaren eta horrekin erri-matzen duen naturaren suntsipenaren oinarrian esklabotza eta kolonialismoa izaki, irakurketa ekologistan, -bai ala bai-kontutan hartu beharreko gertakizunak direla dio. Historia koloniala eta ingurumenaren historia bereiziz, Ferdinandek dio lurrarekilako harremanari kasurik egin gabe begiratzen zaiola esklabotzaren bukaerari. Argi utzi nahi du: “Esklabotzaren abolizioak ez du ‘ekologia kolonialaren’ bukaera ekarri”. Funtsean, bi irla horietako banana ekoizpenaren %66 jabeen %19ak du eta hauetan gehienak dira lehen kolono eta esklabotzako jabeen ondorengoak. ●





ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com